



# Bertso iragarkiak

Iñaki Gurrutxaga Zubimendi

Asmakuntza hauekin aberastu zen Iñaki!

## “TXIMAS” ILEORDEAK

*Doinua: la guriak egin du  
Neurri berezia*

- 1 Zu ez zara **berezia** normala da **gabezia...**(bis) ileen **eskasia** nabarmentzen **hasia** nola estali nahi **jakin?** “TXIMAS” **ileordeekin!**
- 2 Zergatik egon **beldurrak?** Onarpena du **gezurrak!**(bis) Luzeak ta **laburrak** leunak ta **kizkurrak** kolore **denetakoak** ederrak ta **modakoak!**
- 3 Itzuli zaitezke, **jada** heavy **kontzertuetara!** (bis) Xanpua ere, **hara** erabilgarria **da!** Ta zure lagun **bakarra:** ile-lehorgailu **zaharra!**
- 4 Erraza da **eramaten** ia ez da **antzematen!** (bis) Has gaitezen **esaten** zenbatak **daramaten** hara bat, bi eta **hiru:** “GURI FUNTZIONATZEN **DIGU**”

## “ANTILOTS” LOTSAREN AURKAKO KREMA

*Doinua: Antton eta Maria I  
Hamarreko txikia*

- 1 Itzalita daukazu zure **begirada?** Ez duzu atera nahi herriko **plazara?** Kendu zazu estaltzen zaituen **izara!** “ANTILOTS” behar duzu ohartuko **zara:** zure lotsa guztien **konponbidea da!**
- 2 Ez dizkizu kenduko kolpez hamar **urte** baina krema berri hau beharko **zenuke:** aurpegian igurzten baldin **badizute** azala gogortzen du hiru xoxen **truke** telebistatik ere iragartzen **dute!**

- 3 “ANTILOTS” krema emanda diogun **antzera** ailegatuko zara lotsak **uxatzera** zure akats guztiak **disimulatzer.** Are gehiago, haiek dohain **bihurtzera:** bertsolari onenen sekretua **hauxe da!**

## LUJANBIO LOGOPEDIA-ZERBITZUA

*Doinua: Sorlekua utziz geroz  
Neurri berezia*

- 1 “R” simple ta erraz bat al daukazu **hiztegian?** Ardi bat gehiago al zara artaldearen **erdian?** Zuk ahoskera espezial bat nahiko zenuke **agian....** eska ezazu lehenbailehen txanda LUJANBIO **LOGOPEDIAN!**